

## **KULTURA ZIENTIFIKOA, TEKNOLOGIKOA ETA BERRIKUNTZARENA (FECYT) SUSTATZEKO 2017ko LAGUNTZA DEIALDIA**

### **Laguntzen ezaugarriak:**

Finantzatu ahal izango dira partzialki kultura zientifikoa, teknologikoa eta berrikuntzarena sustatzeko jarduerak; ulertuta jarduera hauek izan daitezkeela, esangurarik zabalenean, zientzia, teknologia eta berrikuntzaren dibulgazio zientifikoa, gizarte komunikazioa eta emaitzen zabaltzeari loturiko edozein jardueraren burutze, prestatze, sustatze eta gestioa.

Jarduerok deialdiaren jardute ildoren baten barruan beharko dute egon, baina eskari bakoitza horietako bakar batean lehiatuko da, ez gehiagotan.

Deialdi hau finantzatzeko ekonomi baliabideen zenbatekoa 3.250.000 eurotako da.

### **Jardun ildoak:**

1. Kultura zientifikoa, teknologikoa eta berrikuntzarena.
2. Hezkuntza eta bokazio zientifikoak
3. Zientzia eta berrikuntza zabaldu eta komunikatzeko sareak

*\*Informazioa sakontzeko, komeni da deialdiaren 8. artikulua kontsultatzea.*

### **Parte hartzeko moduak:**

- a. Banaka.
- b. Beste erakunde batzuekiko lankidetzan.

### **Proiektuen iraupena:**

Proiektuak urtekoak izango dira eta 2018ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2019ko martxoaren 31ra arte burutuko dira.

### **Ikertaldeko kideen betebeharrak:**

- a. Ikertzaile nagusiek UPV/EHUrekin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izan behar dute eskaera aurkeztu duen une beretik eta proiektua gauzatu bitartean.
- b. Ikertaldeko kideek UPV/EHUrekin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izango dute eskaera aurkeztean.
- c. UPV/EHUtik kanpoko ikertzailek zein bere erakundearen baimena izan beharko dute proiektuan parte hartzeko. Baimen hau, gainerako dokumentazioarekin batera, bidali beharko da [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus) helbidera.

**GARRANTZITSUA:** Ikertaldeko kideek, laguntza gauzatu bitartean, UPV/EHUrekin duten lotura amaitzen bada, ezin izango dute gasturik egin aipatutako egoeran dauden bitartean. Ikertzaile nagusiak eman beharko dio Ikerketaren arloko errektoreordeari proiektua gauzatu bitartean gertatzen diren bajen berri.

### **Aurrekontua prestatzeko jarraibideak**

Deialdi honen baitan emaniko laguntzek, gehienez, eskaeran aurkeztutako proiektu osoaren aurrekontuaren %60koa finantzatuko ahal dute, eskari bakoitzeko 150.000

eurotako gehieneko kopurua ezarrita.

**GARRANTZITSUA:**

Ikertzaile nagusi eskatzaileak, gutxien dela, proiektuaren aurrekontu osoaren %40a finantzatu beharko du. Horregatik, "I. eranskinean" jaso beharko ditu eskura dituen finantza iturri propioak.

Unitate organikoren bateko arduradunak eskarian parte hartuko ez balu, idazki bat igorri beharko da I. eranskinarekin batera, unitate organiko horretako arduradunak erabilera baimenduz.

Honako gastu hauek aukeragarri hartuko dira:

	SUBENTZIONA DAITEZKEEN GASTUAK	SUBENTZIONATZEN EZ DIREN GASTUAK
<b>MATERIAL INBENTARIAGARRIA</b>		Material inbentariagarria erosi edo amortizatu.
<b>LANGILEAK</b>	Laguntzaren helburuko jarduera eskusibotasunaz egiteko pertsonala kontratatu	Ikertaldeko kideek ezin izango dute ordainketarik jaso nominaren bidez.
<b>MATERIAL SUNTSIGARRIA</b>	Material suntsigarria eta hornigaiak	
<b>BIDAIAR ETADIETAK</b>	Bidaiak, dietak eta ordainsariak	
<b>AUDITORIAROGASTUAK</b>	Emandako laguntza osoaren % 3ra arte.	
<b>BESTE BATZUK</b>	Aholkularitza, sostengu tekniko eta informatiko, difusio, publizitate gastuak, prestakuntza material prestatu, aretoen alokairua, hitzaldi eta ekitaldien antolakuntza.	
<b>ZEHARRAKO KOSTUAK</b>		

**Eskakerak aurkezteko epea eta era:**

Ikertzaile nagusiek eskariak aurkeztu ahal izateko epea **2016ko azaroaren 6an amaituko da, 13:00etan.**

Eskaria elektronikoki aurkeztu beharko da <https://www.convocatoria.fecyt.es/Publico/index.aspx> plataformaren bidez. Ez da beste edozein bidetatik aurkeztutako eskaririk onartuko, webgunean bestela espresuki ez bada adierazten.

### UPV/EHUn egin beharreko tramitea:

<p>2017ko urriaren 17an (barne)</p>	<p>I. eranskina igorri, proposatutako pertsonalaren zerrendarekin, ikerkuntzaren arloko errektoreordetzak berrazter dezan. Eranskina <a href="mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus">convocatorias.dgi@ehu.eus</a> helbide elektronikora bidali beharko da, gaiaren arloan "FECYT deialdia" idatzita. Unitate organiko finantzatzailea proiektuko ikertaldean parte hartzen ez duen ikertzailearen ardurapean badago, bere baimena beharko da funtsak erabili ahal izateko.</p> <p>Dokumentazio hau ezinbestean bidali beharko da eskaria azken finean baliozko joko badu UPV/EHUko legezko ordezkariak.</p>
<p>2017ko azaroaren 6an, 13:00etan (barne)</p>	<p><b>IKERTZAILEEK ESKARIAK AURKEZTU AHAL IZATEKO EPEAREN AMAIERA</b></p> <p><b>Honelakoetan, eskaria behin aurkeztu ondoren, dokumentazio osoa igorri beharko da <a href="mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus">convocatorias.dgi@ehu.eus</a> helbide elektronikora artxiboan gorde dadin.</b></p>
<p>2017ko azaroaren 7an (barne)</p>	<p>Ikerketaren arloko errektoreordetzak elektronikoki balioztatzeke epearen amaiera.</p>

### UPV/EHUko datuak.

Hauk dira erakundearen (UPV/EHU) datuak eskaera betetzeko:

- **Erakundea:** Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
- **IFK:** Q4818001B
- **Helbide soziala:** Sarriena Auzoa, z. g.
- **Posta kodea:** 48940
- **Herria:** Leioa (Bizkaia)
- **Harremanetarako helbide elektronikoa:** [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus)
- **Harremanetarako telefonoa:** 94 601 80 08

### Harremanetarako:

IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA	FECYT
<p>94 601 80 08 <a href="mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus">convocatorias.dgi@ehu.eus</a></p>	<p>91 425 18 00 (astelehenetik ostiralera 9:30etatik 13:30etara) <a href="mailto:convocatoria@fecyt.es">convocatoria@fecyt.es</a>.</p>

### Informazio gehiago:

<https://www.convocatoria.fecyt.es/Publico/Bases/Bases.aspx>